



HITZALDI GELA ERABILTZeko IRIZPIDEAK

Elgoibarko Udalak, hitzaldi gelaren erabilera arautzeko, honako irizpideak jarri ditu:

- 1.- Elgoibarko Udalari dagokio Kultura Batzordearen bidez instalazio honen erabilera arautzea.
- 2.- Hitzaldi gela erabiltzeko, dagokion eskaera orria beteko da. Gaia eta jarduna zeintzuk diren zehaztuko da. Halaber, bideoa, filmina proiektorea, transparentzia edo megafonia erabili nahi izanez gero, eskabide orrian bertan adierazi beharko da.
- 3.- Eskatzaileek, baimena lortu ondoren, honako betebeharrak izango dituzte:
 - a.- Udaltzaingoaren bulegoan Kultur Etxeko giltza lortu ahal izateko, Kultur Etxean baimen orria jasotzea. Jarduna bukatzean aipatutako giltza Udaltzaingoaren bulegora itzultzea. Eskatzaileak filmina proiektorea edo erretroproiektorea erabiltzeko baimena eskatu badu, ekitaldiaren egunean bertan Kultur Etxeko arduradunari gogorazi beharko dio, tresna hauek eskatzailearen eskura jar ditzan.
 - b.- Jarduna erabaki bezala egitea: egunak errespetatzea, eta egingo diren gainontzeko jardunak ez oztopatzea.
 - d.- Kultur Etxean beste jardunik ez dagoen bitartean gainontzeko instalazioak zaintzea.
 - e.- Bertako materialaren, altzarien, e.a.-en, erabileraz arduratzea, eta zeuden moduan uztea.
- 4.- Betebeharrak hauek ziurtatzeko, beharrezkotzat jotzen dituen baliabideak jar ditzake udalak eta beharrezkoa baderitzo fidantza ere eskatu behar izango du. Xehetasun hauek guztiak baimena ematean zehaztuko dira, eta baimena izateko, horiek onartzea ezinbestekoa izango da.
- 5.- Lehenetasuna izango dute Udalari dagozkion erakundearen bidez (Batzordeak, Bilkura, e.a.) antolatutako ekintzek.
- 6.- Honako ekintza hauek izango dute lehenetasuna, Hitzaldi Gela erabiltzeko orduan:
 - a.- Udalak antolatutakoak.
 - b.- Udalarekin elkarlanean aritzen diren elkarteek* antolatutakoak.
 - d.- Elgoibarren aritzen diren beste erakunde batzuek antolatutakoak*.
- 7.- Helburua dirua irabaztea duten ekintzei dagokienez, ordu bakoitzeko, eta ordu zati bakoitzeko **50 euro** ordaindu beharko dira.
- 8.- Debekatuta dago bide edo leku publikoetan ekitaldi hau iragartzeko kartelak jartzea.
- 9.- Goian aipatutako baldintzak direla eta, aurreikusi ez diren arazoak, Udalak konponduko ditu Kultura Sailaren bidez.

Honetaz gain, baldintza horiek interpretatzean zalantzaren bat sortuko balitz, Udalaren lana izango da zalantza horiek argitzea.

* Elkarte eta Entitate hauek, Eusko Jaurlaritzako Elkartearen errordan inskribaturik egon beharko dira.